

Espedientearen kodea: 2024ZZ020008

Espedientearen gaia: 2024an Oiartzungo herritarrek aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia

Dekretuaren zenbakia: 2024/1834

## IRAGARKIA

Alkateak, 2024/11/29 dataz, honako ebazpena eman du:

“2024ko uztailaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Oiartzungo herritarrek aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia. Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 2.000,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0321.480.335.00.03 2024 zenbakidun partidaren kontura.

Jasotako eskaerak oinarrietan adierazitako irizpideen arabera baloratu dira eta eskaera egin duen pertsona bakoitzari zenbateko dirulaguntza dagokion zehaztu da.

Hizkuntz Normalizaziorako teknikariak egin duen txostena ikusita eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

### ERABAKI DUT

Oiartzungo herritarrek aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak emateko, guztira 800,00 euroko gastua onartzea eta beheko koadroaren arabeko dirulaguntzak ematea eskaera egin duten ikasleei.

| Izena | Abizena1   | Abizena2 | NA        | eskola  | ordaindutakoa | Bukatua | Dagokion % 50a | GEHIENEZ jaso dezakeena |
|-------|------------|----------|-----------|---------|---------------|---------|----------------|-------------------------|
| INGE  | MITXELENA  | IRIONDO  | **3644*** | Aisiola | 430,00 €      | Bai     | 215,00 €       | 200,00 €                |
| PAUL  | OIARTZABAL | MENDIBIL | **5754*** | Aisiola | 430,00 €      | Bai     | 215,00 €       | 200,00 €                |
| NAHIA | FERNANDEZ  | INCIARTE | **1963*** | Aisiola | 430,00 €      | Bai     | 215,00 €       | 200,00 €                |
| MALEN | ETXEBESTE  | LEKUONA  | **2807*** | Aisiola | 430,00 €      | Bai     | 215,00 €       | 200,00 €                |
|       |            |          |           |         |               |         | GUZTIRA        | 800,00 €                |

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0321.480.335.00.03 2024 (A 1560/ 2024) diru atalera bideratuko da.”

Eta horren berri ematen dizuegu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRATZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoaren Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Elektronikoki sinatua

| Sinaduren laburpena / Resumen de firmas |                                                                      |
|-----------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|
| Titulua / Título:                       | 2024ZZ020008-Jakinarazpen orokorra/Jakinarazpen orokorra (ETXEBESTE, |